

berritzeguneak

bete behar dituzte

funtzioak


zer dira?

antolatuta daude

urtero jasotzen dute

2001ko otsailean **Prestakuntzan eta Hezkuntzaren Berrikuntzan Laguntzeko Zentroak (berritzeguneak)** abian jarri ziren non ohizko hezkuntza premia bereziko eta arloko aholkularitzaz (**COP-PAT**) gain bai Berrikuntza programak xede zuten eta bai hezkuntza etapa desberdinak atenditzen dituzten beste aholkularitza berri batzuk sortu ziren. Azpiegitura berria eta Euskal estola Publikoaren Legetik egozten zen aholkularien egoera administratibo berri batetan oinarriturik, 2001ko irailean Berritzegune hauen ibilaldia hasi zen. Aurreneko seiurtekoan zehar lorturiko eskarmentuak bultzaturiko agokitzapen batzuen ostean, 2007. urtean zehar etapako aholkularitzak indartu nahi zuen berrantolatze bat gauzatu zen, etapako aholkularitza hauek Hezkuntza Departamentuak lehensturiko ildo eta programak bultzatzearen ardura hartuko zutelarik.

- Dekretua berritzeguneak **sortzen** dituen (2001)
- Dekretua berritzeguneetako **LZ** onartzen duena (2001)
- Dekretua Launtza Zerbitzueta **hizkuntza eskakizunak** finkatzen dituen (2001)
- Agindua **funtzionamendua** eta **antolamendua** arautzen dituen (2001)
- Dekretua **egitura, funtzionamendua** eta **antolamendua** arautzekoa (2009).
- Dekretua berritzeguneetako **LZ berria** finkatzen duena (2009)



Aholkularitza-arloak:

- Alderdi didaktiko orokorre eta espezifikogoei buruzko aholkuak ematea eskualdeko ikastetxeei eta irakasleei.
- Irakasleek hainbat alorretan egin ditzaketen ekarpenak aztertzea eta bideratzea (curriculum, alor didaktikoa, teknologia berriak, hizkuntza-normalizazioa...).
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak sustatzen dituen hezkuntza-berrikuntzen lehentasunezko ildoei buruzko aholkularitza ematea ikastetxeei eta irakasleei.
- Baliabide pedagogikoen eta material didaktikoen dokumentazio- eta mailegu-zentro gisa jardutea. Ikastetxeek esparru horretan egindako eskariak kudeatu eta bideratu dituzte, gainera.

E Prestakuntza-arloak:

- Irakasleen prestakuntzarako eskualde-planen gertatze-lanetan eta kudeaketan laguntzea.
- Ikastetxeko prestakuntza-proiektuak planifikatzeko, aholkatzeko eta ebaluatzeko lanetan laguntzea.
- Irakasleen prestakuntza-eskaerak bideratzea.
- Irakasleak prestatzea.
- Ikastetxeetako proiektuetatik sortutako eskariei erantzuteko, prestakuntza ematea eta hura kudeatzea.

Berrikuntzan, esperimendazioan eta ikerketan:

- Premia pedagogikoak aztertzen eta gabezia horiek konpontzen laguntzea Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari.
- Aholkuak ematea hezkuntza-premia berezidun ikasleak dituzten ikastetxeei eta haien irakasleei, eta bere gain hartzea ekainaren 23ko 118/1998 Dekretuak, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko erantzuna antolatzeak, eta hura garatzeko aginduek diziplina anitzeko profesional-taldeeie esleitzen dizkien eginkizunak.
- Sailak edo ikastetxeek beraiek sustatutako berrikuntza-eta esperimendazio-proiektuen plangintza, aholkularitza eta ebaluazioa laguntzea.
- Eskola-materiala eta material kurrikularra aztertzea eta ebaluatzea.
- Irakaskuntzako esperimenduen trukaketak sustatzea.
- Hezkuntza-sisteman hautemandako premien ondorioz sortutako ekintza eta programa guztiak sustatzea.
- Beste erakunde batzuekin koordinatuta, era guztietako hezkuntza-jarduerak sustatzea.
- Zonaldeak hezkuntza-premia berezien alorrean dituen baliabideak kudeatzea.